# 2024ko irailean erregistratutako langabezia

2024ko irailean LANBIDEko bulegoetan izena emandako langabetuen kopurua 3.367 pertsonatan jaitsi da, %3,02ko jaitsiera suposatuz, eta 107.996 pertsonatan kokatu da. Iraileko langabezia zifren bilakaera ohikoa da hilabete honetan, langabezia gutxitzeko joera baitago, 2007ko irailaz geroztik saldo negatibo onena lortuz. Langabezia datuak hobetu dira, eta hilabete honetan izena emandako langabetuen kopurua %0,06 txikiagoa da abuztuko datuekin alderatuta.




Urte arteko saldoaren bilakaerak 1.271 pertsonatan (+%1,19) gora egin du iazko irailarekin alderatuta. Egiturazko langabeziaren pisua gero eta handiagoa den arren, erregistratutako langabeziaren bilakaera positiboa zailduz, azken hilabeteetan erregistratutako langabeziaren urte arteko igoera jarraitu beharko da. Nolanahi ere, hurrengo hilabeteetako portaera ikusi beharko da zeren ondorio den jakiteko; gertaera puntual bat den, Lanbideko zerbitzuetara gero eta jende gehiago hurbiltzearen ondorio den edo eragin sakonagoko aldaketa den jakiteko.

Gaur egun izena emandako langabetuen kopurua, 2013ko martxoko gehieneko historikotik 71.345 pertsonetara kokatzen da; hilabete hori izan zen 2008ko krisiaren unerik txarrena. Une honetan, 2007ko ekaineko azken hamarkadetako gutxieneko historikoan baino 37.041 pertsona gehiago daude langabezia egoeran.

Beste irail batzuetako balio maximo eta minimoei dagokienez, 2024ko langabetuen kopurua 2013koa baino 68.490 txikiagoa da, eta 2007ko irailarekin alderatuta 34.548 handiagoa.

## • SEXUA

Sexuaren arabera, langabezia bi generotan jaitsi da, baina emakumeen portaera hobea izan da gizonezkoenarekin alderatuta hilabete arteko konparaketan, eta okerragoa urte arteko konparaketan. Horrela, hilabeteko saldoan -2.197 emakume (-%3,37) eta -1.170 gizon (-%2,53 daude langabezian; urte arteko saldoan gizonak 422 pertsonatan (+%095) igo dira eta emakumeak 849 pertsonatan (+%137).

## • ADINA

Datuek adin-tarte guztietan hilabete arteko saldoaren jaitsiera erakusten dute, eta 30 eta 45 urte bitarteko pertsonak dira gehien jaitsi direnak bai kopuru absolututan (-2.287) bai erlatiboetan (-% 6,88), aurreko urtean bezala. 30 urtetik beherako pertsonek erakusten dute jaitsiera txikiena hilabeteko datuetan (-317 -% 1,73). 45 urtetik gorako pertsonekin hilabeteko saldoa -763 (-% 1,28) jaitsi da. Oro har, adin-tarte guztietan emakumeen portaera hobea izan da gizonenarekin alderatuta.

Urte arteko saldoan, 30 urtetik beherako gazteak dira bilakaera txarrena dutenak, iazko urtearekin alderatuta 795 pertsona gehiago dituztenak langabezia egoeran (+% 4,61). 30 eta 44 urte bitarteko pertsonak dira igoera txikiena duten taldea, urte arteko saldoa +142 pertsonatakoa dute (% 0,46ko igoera). Emakumeen artean portaera onena 30 urtetik beherako adin-tartean izan da. Bestelako adin-tarteetan, gizonezkoen portaera hobea izan da.

## • JARDUERA EKONOMIKOA

Sektoreka hartuta, hilabete honetan langabezia jaitsi egin da sektore guztietan, lehen lanik izan ez duten pertsonen artean izan ezik (2023ko irailean bezala). Zerbitzuen sektorean izandako jaitsiera nabarmentzen da (-3.111; -% 3,92), ondoren honakoak datoz: industriaren sektorea (-181; -%172), eraikuntzaren sektorea (-103; -%172) eta nekazaritza eta arrantza sektoreak (-86; -%460). Erregistratutako saldo osoaren %92,39 zerbitzuen sektoreari dagokio.

Urte arteko saldoan, zerbitzuen sektorea da balio absolututetan datu txarrenak izaten jarraitzen duena (+%1,38ko igoera, +1.033 pertsona); balio erlatiboetan, aldiz, lehen lanik izan ez duten pertsonen artean izandako igoera nabarmentzen da (+% 4,63) eta 612 pertsona gehiago. Gainerako sektoreetan, nekazaritza eta arrantzan izan ezik, urte arteko saldoak langabetuen kopuruan jaitsierak erakusten ditu.

Xehetasun handiagoz, azken hilabetean langabeziak behera egin duelako gehien nabarmentzen diren jarduerak hauek izan dira:

| | | |
|---|---|---|
| o | 85 Hezkuntza | -2.386 |
| o | 78 Enpleguarekin lotutako jarduerak | -428 |
| o | 56 Janari- eta edari-zerbitzuak | -312 |
| o | 84 Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza | -148 |
| o | 25 Metalezko produktuen fabrikazioa, makineriarena izan ezik | -124 |

Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:

| | | |
|---|---|---|
| o | 87 Egoitza-establezimenduetako laguntza | 325 |
| o | 81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak | 240 |
| o | Aurretik enplegurik gabekoak | 114 |

## • LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan iraupen luzeko langabezia ia egonkor mantendu da, 3 pertsona gutxiago baitaude langabezian. Iraupen laburreko langabezia -3.364 pertsonatan jaitsi da. Iraupen luzeko langabeen kopurua % 49,5 da, abuztuan baino 1,5 p.p. gehiago.

Termino erlatiboetan, urteko erreferentzian, luzaroko langabeen kolektiboak gora egin duela ikusten da, 809 pertsona gehiago baitaude ( % 1,5), eta iraupen laburreko ere gora egin du, % 0,85 hain zuzen ere, 462 langabe gehiago.

Iraupen luzeko langabeen profil nagusia emakumea, Bizkaitarra, eta 44 urtetik gorakoa da. Azken hilabeteko bilakaera erlatiborik onena gizonei dagokie, 30 urtetik beherakoei eta Bizkaian bizi direnei. Iazko datuekin alderatuta, iraupen luzeko langabeziak gora egin du 30 urtetik beherakoen artean (+213, +%4,6) eta emakumeen artean (+725, +%2,3). Lurralde historikoen arabera, Araba da iraupen luzeko langabeen kopuruak behera egin duen lurralde bakarra, aurreko urtean baino 266 pertsona gutxiago baitaude ( % 2,8ko jaitsiera).

## • LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, pertsona langabeen kopuruak gora egin du lurralde guztietan. Horrela, aurreko hilean izandako joeraren antzekoa izan da: Gipuzkoan izan da igoera erlatibo handiena (+%4,64), gero Bizkaian (+%2,84) eta azkenik Araban (+%1,29).

Urte arteko saldoan, Araban bakarrik jaitsi da langabeen kopurua (-772 eta -%4,08), aurreko hilean bezala. Bizkaian izan da hazkunde absoluturik handiena, 1.483 pertsona gehiagorekin (+%2,48); ondoren Gipuzkoa dator (+%2,01), non 560 langabe gehiago dauden.

Hilabete honetan, langabeen saldoa negatiboa izan da hiru euskal hiriburuetan, eta Donostiakoa izan da jaitsiera erlatibo handiena izan duena, -%3,78ko jaitsierarekin. Ondoren Vitoria-Gasteiz (-%2,07) eta Bilbo (-%1,83) daude. Urte arteko datuei erreparatuz gero, Gasteizen bakarrik egin du behera langabeziak: -156 langabe daude (-%1,10). Bilbon 567 pertsona gehiago daude langabezian (+%2,73) eta Donostian 99 gehiago (+%1,52).

# 2024ko irailean erregistratutako langabezia

Irailean erregistratutako langabezia-tasa handienak izan dituzten udalerriak Lanestosa ( % 16,52), Sestao ( % 15,33), Amurrio ( % 15,02), Ortuella ( % 14,59) eta Alonsotegi ( % 14,53) izan dira.

## • LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024ko irailean, 34.878 langabetuk, aurreko hilabetean baino 3.854 gutxiagok, langabezia-prestazioen bat jaso dute. Gaur egun, langabetuen % 32,3k dute prestazioren bat jasotzeko eskubidea. Langabetuen %18,4k, 19.826 pertsonak, kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute, aurreko hilabetean baino 29 p.p. gutxiago. Langabeziagatiko diru-laguntzaren bat jasotzen dutenak %12,86 dira (13.887 pertsona). Lurralde Historikoari dagokionez, Gipuzkoa da babes handiena duen lurraldea, %35,1eko tasa duena; Bizkaian %31,7koa da, eta Araban %29,8koa..

Aurreko hilabetearekin alderatuta, langabeziagatiko estaldura-tasa 2,48 puntu jaitsi da, eta iazko irailarekin alderatuta 0,07 puntu.

## • JATORRIA

Langabezia egoeran dauden pertsona guztien artean, 19.778 (%18,3) atzerritarrak dira. 2023ko irailarekin alderatuta, atzerriko jatorria duten pertsonen langabezia 318 pertsonatan (%163) igo da. Espainiako naziotasuna duten pertsonen artean, langabezia 3.685 pertsonatan jaitsi da (-% 4,01), hilabete honetan 88.218 langabetu izanik.

Urte arteko bilakaeran, atzerriko jatorria duten pertsonen langabezia % 6,32 igo da, eta Espainiako naziotasuna duten pertsonen artean % 0,11 igo da. Saldoaren % 92,4 atzerriko jatorria duten pertsonen artean kokatzen da.

Atzerriko langabetuen %32,9 Ipar Afrikatik datoz, %27,3 Latinoamerikatik, %15,5 Europako Esparru Ekonomikotik, %10,5 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta % 6,9 Asiako herrialdeetatik.

## • IKASKETA MAILA

58.764 pertsona, guztizkoaren % 54,4, derrigorrezko hezkuntza-ikasketak dituzten langabeak dira. Talde horrek 436 pertsonatan (-% 0,74) egin du behera hilabetean honetan, eta 272 pertsonatan (-% 0,46) urte arteko bilakaeran (urte artekoan jaitsiera izan duen talde bakarra izanik).

Batxilergo -ikasketak dituzten pertsonak langabetuen %7, 8 dira. Azken hilabetean talde honetan langabezia % 3,47 jaitsi da, eta azken urtean % 1,02 igo da.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 27.340 pertsona dira, guztizkoaren % 25,3. Hilabete honetan saldo negatiboa izan dute, -95 pertsonakoa, eta iazko urtearekin alderatuta % 5,19ko igoera izan dute, urte arteko igoera handiena duen taldea izanik.

Azkenik, langabetuen % 12,5, hau da, 13.491 pertsona, unibertsitate-ikasketak dituztenak dira, eta talde horrek daturik onenak erakutsi ditu hilabeteko bilakaeran, -2.534 pertsonako jaitsiera izan duelarik (-% 15,81). Aurreko urtearekin alderatuta, talde horretan 108 pertsona gehiago daude langabe (+% 0,81).

## • KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabeziak % 0,12 egin du gora, 3.164 pertsona gehiago izanik, guztira 2.575.285 langabetu erregistratu daude. Euskadiko Autonomia Erkidegoan, berriz, langabezia % 3,02 jaitsi da. Hurbileko erkidegoei dagokienez, Nafarroak % 0,7ko igoera izan du, Errioxak % 3,98ko murrizketa izan du, Kantabriak % 0, 28ko igoera izan du eta Gaztela eta Leonek %0,13ko igoera izan du. Erkidego handien artean, Katalunian langabezia % 1,21 jaitsi da, Madrilen, berriz, % 0,46 igo da

### Lan-eskatzaile langabeak 2024ko irailean

| | Ira-2024 | Abu-2024 | Saldoa | Bil % |
|---|---|---|---|---|
| **SEXUA:** | | | | |
| GIZONEZKOAK | 45.013 | 46.183 | -1.170 | -2,53 |
| EMAKUMEZKOAK | 62.983 | 65.180 | -2.197 | -3,37 |
| **25 URTEZ AZPIKOAK:** | | | | |
| GUZTIRA | 18.054 | 18.371 | -317 | -1,73 |
| GIZONEZKOAK | 8.606 | 8.689 | -83 | -0,96 |
| EMAKUMEZKOAK | 9.448 | 9.682 | -234 | -2,42 |
| **25-44 URTE:** | | | | |
| GUZTIRA | 30.935 | 33.222 | -2.287 | -6,88 |
| GIZONEZKOAK | 11.530 | 12.310 | -780 | -6,34 |
| EMAKUMEZKOAK | 19.405 | 20.912 | -1.507 | -7,21 |
| **45 URTEZ GORAKOAK:** | | | | |
| GUZTIRA | 59.007 | 59.770 | -763 | -1,28 |
| GIZONEZKOAK | 24.877 | 25.184 | -307 | -1,22 |
| EMAKUMEZKOAK | 34.130 | 34.586 | -456 | -1,32 |
| **SEKTOREA:** | | | | |
| NEKAZARITZA ETA ARRANTZA | 1.782 | 1.868 | -86 | -4,60 |
| INDUSTRIA | 10.327 | 10.508 | -181 | -1,72 |
| ERAIKUNTZA | 5.898 | 6.001 | -103 | -1,72 |
| ZERBITZUAK | 76.157 | 79.268 | -3.111 | -3,92 |
| AURREKO ENPLEGURIK GABE | 13.832 | 13.718 | 114 | 0,83 |
| **LURRALDE HISTORIKOA:** | | | | |
| ARABA | 18.152 | 18.490 | -338 | -1,83 |
| BIZKAIA | 61.379 | 62.995 | -1.616 | -2,57 |
| GIPUZKOA | 28.465 | 29.878 | -1.413 | -4,73 |
| **EAE** | **107.996** | **111.363** | **-3.367** | **-3,02** |

## ESKUALDEKO BILAKAERA

| | Langabetuak | Erregistratutako langabezia indizea | Aurreko hilabetea | | Aurreko urtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Saldoa | Bil % | Saldoa | Bil % |
| Bajo Bidasoa | 3.727 | 9,8% | -104 | -2,71 | 39 | 1,06 |
| Oarsoaldea | 3.245 | 8,7% | -134 | -3,97 | 72 | 2,27 |
| Donostia-S.Seb. | 6.620 | 7,4% | -260 | -3,78 | 99 | 1,52 |
| Donost.Oeste | 2.846 | 7,3% | -195 | -6,41 | 92 | 3,34 |
| Tolosaldea | 1.827 | 7,6% | -76 | -3,99 | 30 | 1,67 |
| Urola Erdia | 1.199 | 7,6% | -121 | -9,17 | 51 | 4,44 |
| Goiherri | 1.586 | 7,3% | -119 | -6,98 | -22 | -1,37 |
| Alto Deba | 2.332 | 7,6% | -93 | -3,84 | 41 | 1,79 |
| Bajo Deba | 2.634 | 10,0% | -108 | -3,94 | 106 | 4,19 |
| Urola Garaia | 1.031 | 8,4% | -71 | -6,44 | 5 | 0,49 |
| Urola Kosta | 1.418 | 6,1% | -132 | -8,52 | 47 | 3,43 |
| **GIPUZKOA** | 28.465 | 8,0% | -1.413 | -4,73 | 560 | 2,01 |
| Vitoria-Gasteiz | 14.019 | 10,9% | -296 | -2,07 | -156 | -1,10 |
| Valle de Aiala | 2.211 | 11,6% | 16 | 0,73 | 74 | 3,46 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Rioja Alavesa | 513 | 8,9% | -8 | -1,54 | 11 | 2,19 |
| LLanada Alavesa | 668 | 8,8% | -22 | -3,19 | -19 | -2,77 |
| Estrib. Gorbea | 292 | 5,8% | -10 | -3,31 | -9 | -2,99 |
| Valles Alaveses | 373 | 7,2% | -13 | -3,37 | -15 | -3,87 |
| Montaña Alavesa | 116 | 7,0% | -5 | -4,13 | 16 | 16,00 |
| **ARABA** | 18.152 | 10,6% | -338 | -1,83 | -772 | -4,08 |
| Gobela | 4.317 | 8,4% | -96 | -2,18 | 97 | 2,30 |
| Txorierri | 2.045 | 8,7% | -76 | -3,58 | 62 | 3,13 |
| Uribealdea | 2.784 | 7,9% | -180 | -6,07 | 119 | 4,47 |
| Duranguesado | 3.159 | 8,3% | -155 | -4,68 | 97 | 3,17 |
| Busturialdea | 1.998 | 8,9% | -108 | -5,13 | 72 | 3,74 |
| Lea-Artibai | 824 | 6,8% | -118 | -12,53 | -29 | -3,40 |
| Encartaciones | 1.851 | 11,7% | -17 | -0,91 | 19 | 1,04 |
| Arratia-Zornotza | 1.406 | 7,9% | -108 | -7,13 | 33 | 2,40 |
| Medio Nervion | 1.262 | 9,5% | -12 | -0,94 | -5 | -0,39 |
| Bilbao | 21.319 | 12,5% | -398 | -1,83 | 567 | 2,73 |
| Margen Izquierda | 16.127 | 12,7% | -204 | -1,25 | 430 | 2,74 |
| Ibaizabal | 4.245 | 10,3% | -144 | -3,28 | 32 | 0,76 |
| **BIZKAIA** | 61.379 | 10,8% | -1.616 | -2,57 | 1.483 | 2,48 |
| **CAPV** | **107.996** | **9,8%** | **-3.367** | **-3,02** | **1.271** | **1,19** |

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.